



ERRAIETAN BARRENA

UNITATE DIDAKTIKOA

AURKIBIDEA

1. Proiektuaren deskribapen orokorra	2
2. Helburuak	2
Orokorra	2
Espezifikoak	2
3. Justifikazioa	3
4. Saioen nondik norakoak	4
Ezaugarriak	4
5. Aurreikusitako ebaluazio-irizpideak	8

1. Proiektuaren deskribapen orokorra

Erraietan Barrena **tratu txarren inguruko sentsibilizazio eta prebentzio** programa bat da, zeinetan gorputz eta hausnarketa dinamika desberdinen bidez, tratu onak eta genero berdintasuna lantzean diren.

2. Helburuak

Helburu orokorra

Helburu orokorra **tratu onen eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruan kontzientziaztea eta sentsibilizatzea** da, giza eskubideen ikuspegia, elkarrizketa filosofikoa eta gorputz dinamika desberdinak hezkuntza-tresna gisa integratuz.

Programa genero-berdintasunerako hezkuntzaren eta tratu onen esparruan kokatzen da, ikasleek emakumeen aurkako tratu txarrei eta indarkeriari buruz gogoeta egin dezaten, honen jatorria uler dezaten, indarkeria hautematen eta enpatia, erantzunkidetasuna eta prebentzioa lantzen ikas dezaten.

Helburu espezifikoak

- Giza eskubideak errespetatzen dituen gizarte demokratiko batean bizitzeko eta parte hartzeko beharrezkoak diren trebetasunetan trebatzea: elkarrizketa, entzutea, gogoeta eta argudioa, enpatia, errespetua edo genero-kontzientzia.
- Ikasleak ahalduntzea ikastetxean gerta daitezkeen gatazkei aurrea hartzeko eta indarkeria mota guztiak identifikatu zein hauen aurrean ekiteko.
- Ikasleak Giza Eskubideen ikuspegitik ahalduntzea, aldaketaren subjektu direla jabetu daitezen.
- Irakasleekin elkarlanean aritzea, beraien eguneroko lanean tratu onak, elkarrizketa eta errespetua sustatzeko.

3. Testuingurua eta justifikazioa

Ikertzek hiru hamarkada daramatza hezkuntza formalaren zein ez-formalaren testuinguruan adin desberdinetako haur eta nerabeekin lan egiten. Gipuzkoa mailako ikastetxe desberdinetan gauzatzen dugun jardunaren haritik, hainbat jarrera matxista hautematen ditugu ikasleriaren artean eta pertsonalki asko arduratzen gaituen kontua da hau.

Eremu askotan ematen diren genero-desberdintasunak dituen gizarte baten barruan bizi gara:

- Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun ekonomikoa. Emakumeen zaurgarritasuna langabezia-tasa handiagoan ikusten da, baita kobratzen duten soldatan eta egiten duten lan-motan ere.
- Emakumeen aurkako indarkeria errotuta dago oraindik gizartean, hau ez delarik soilik belaunaldi zaharretan bakarrik ematen, emakume oso gazteek ere indarkeria mota desberdinak pairatzen dituzte.
- Koronabirusaren haritik bizitako krisian azaleratu den kasan, tradizionalki emakumeek bereganatu ohi dituzten zainketen krisian murgilduta jarraitzen dugu (kasualitatea?). Zaintza-lanak, historikoki femeninoak eta feminizatuak, ikusezinak, ordaindu gabeak edo gutxietsiak izaten dira.


Orain arte esandakoari, aniztasunaren aurrean (jatorrizkoa, sexuala, kulturala etab.) dauden jarrera ezkorrak sortzen dituzten tentsioak gehitu behar zaizkio. Esaterako, gaur egungo gazteek aniztasun sexualarekiko jarrera irekiago bat duten arren, fobia kognitibo, afektibo eta konduktualak oso errotuta daude oraindik gure gizartean. Jatorri- edo erlijio-aniztasunaren kasuan, estatuko beste eskualde zein hiri batzuekin alderatuz gero, Gipuzkoako ikastetxeetako tasak baxuagoak dira; zenbait ikastetxetako ikasgeletan, ez dago Euskadi ez den beste jatorri bateko ikaslerik. Honek, aurreiritziak areagotzea dakar, ikastetxeetan bizikidetza eta aniztasuna sustatzeko ekimenak gauzatzen ez badira.

4. Saioen nondik norakoak

Ezaugarriak

Ikasle talde bakoitzarekin **bi orduko saio bat** burutzea aurreikusten da.

Jarraian eskuragarri dagoen eskema honen bidez, saioaren antolaketa modu bisual batean adierazteaz gain, hurrengo orrialdeetan, saioak irauten duen denboran zehar garatuko diren dinamikei buruzko informazioa deskribatzen da;



4. Saioen nondik norakoak

Ezaugarriak

Aulkien jolasa

Ikertzetik, bizipen-ikaskuntzaren defendatzaile irmoak gara. Alde horretatik, jolasa eta gorputz-dinamikak tresna eta baliabide lagungarriak dira norberaren bizitzan aplikatutako kontzeptu berriak irakasteko eta ulertzeko. Helburua alderdi soziala eta pertsonala lotzea da, eta jabetzea indarkeria matxistek nola zeharkatzen duten gure eguneroko bizitza.

Kasu honetan, "Aulkien jokoan" parte hartzeko eskatzen diegu, baina klasean gertatutako gertaera bat kontatuz, eta taldean ezartzen diren harremanekin zerikusia izatea. Horrek ikasleek zeri ematen dioten garrantzia erakusten digu; halaber, talde horretan parekideen arteko indarkeriekin lehen kontaktua da (sexismoak gurutzatutako indarkeria), eta, azken batean, tailerra egingo den talde-testuinguruaren lehen argazkia da.

Tratu onak/tratu txarrak

Dinamika honetarako 4 talde egiten ditugu, eta 4 hitz eskatzen dizkiegu taldeko, tratu txarrekin erlazionatzen direnak, eta beste 4 hitz tratu onekin erlazionatzen direnak, ekintzan zentratutako hitzak izan daitezen animatuz, eta konkretuan zentratzen direnak.

Ondoren, ozen irakurri behar dira, eta denon hitzak arbelean idatziko ditugu. Horrela, taldearen ezagutza praktikoa eta zirkulatzen duten erlazio-joerak bistaratzen dira. Taldearen jakintza ikusarazteak balio du batzuek eta besteek elkarrekin ikas dezaten, inspirazio-ideiak har ditzaten eta, berriro ere, norbera gaur egun nola moldatzen ari den ohartarazteko.

Puntu horretan, hezitzaileak ozen egiten du azken gogoeta, eta taldearen jakintza balioesten du, baita norbanakoaren eta taldearen erantzukizuna ere, egunerokotasunean tratu onetara jauzi egiteko.

4. Saioen nondik norakoak

Ezaugarriak

Nola tratatzen dugu elkar?

Taldean elkarri ematen dioten tratuaz ohartzeko helburuarekin jarraitzen du ariketa honek. Aulkien jolasetik abiatuta, galdetuko diegu:

Ba al dago aulkien jokoan zehar kontatu diren gertakizunen bat errespetu falta dakarrena?

Tratu txarrak al dira errespetu falta horiek?

Zeren arabera da errespetu falta bat tratu txar bihurtzea?

Jarraian, taldean hori gertatzen denean zer egin dezakegun hausnartuko dugu (erantzukizun kolektiboaren garrantzia azpimarratuko dugu).

“Gure Mundua” nola osatuta dagoen eta zer maitasun harreman sortu ditzakegun

Neska-mutilei azalduko diegu zer garrantzitsua den gure autoestimurako "gure mundua" ondo osatuta edukitzea, hau da, denbora eskeintzea gure familiari, gure lagunei, aisialdiari eta zaletasunei, gure ikasketei edo lanari, gure ametsei eta desioei... horrek "ukiezina" izan beharko luke gutako bakoitzarentzat, eta beti zaindu beharko genuke.

Beraz, pertsona batekin harreman sentimentala hasten badugu, oso garrantzitsua da gure mundua ez ahaztea eta aipatutako atalak zaintzen jarraitzea. Hemen, dinamika bat sartzen dugu uztaiekin, aurki ditzakegun maitasun harreman motak sinbolizatzeke: maitasuna/harreman independentea, interdependientea eta menpekotasunezkoa. Dinamika horren bidez, oso ondo ikusten da menpeko maitasunean nola kideetako batek (matxismoaren eraginez, emakumea edo bikotean identitate subalternoa duen kidea) bere bizitza propioa bizitzeari utzi ohi dion, harremanaren izenean.

4. Saioen nondik norakoak

Ezaugarriak

Itxiera eta ebaluazioa

Ebaluazioa hezkuntza-egoera, lanaren hausnarketa, prozesua edo emaitzak zein ikerketa behatzeko baliabide gisa ulertuz -eta ez lan-prozesu bat laburbiltzeko edo ixteko balio duen jarduera soil bat bezala-, probak puntuatzeko zenbakiak edo letrak erabiltzen ziren molde tradizionalekin hautsi, eta esku-hartzea ebaluatzeko irudi bidezko ebaluazioa erabiltzea proposatzen da. Metodologia honen erabilerarekin, saioak ebaluatzeko jarduera zerbait dinamikoa, sortzailea eta ludikoa izatea bilatzen da; hau saio bakoitza bukatzean gauzatuz, ebaluazio jarraia egiteko zein proposamen osoaren garapena behatzeko beharrezko informazioa eskuratzeko aukera izango du hezitzaileak.

Irudi bidezko ebaluazioa gauzatzeko, hartzaileei pentsamendu ezberdinak, hausnarketak, hitzak zein emozioak sorrarazi ahal dituzten irudiak erabiliko dira (koadroak, marrazkiak, koloreak, paisaiak, sinboloak, testurak...). Funtsezkoa da ere, argi eta garbi zehaztea zer den ebaluatuko dugun hori, hezkuntza-prozesuaren edozein aspektu ebaluatu bait daiteke, esaterako, edukia, dinamikak edota jarrerak.

Beraz, partaideek interesa erakutsi duten aspektuen inguruan hausnartu, eta ebaluatuko diren elementuak erabakiko dira taldean. Hona hemen adibide batzuk: taldearen arreta-maila, kontzeptu jakin bati buruzko ezagutza, saioetan zehar sortu diren sentimendu zein emozioak, erabilitako baliabideak, saioaren erritmoa, saioaren planteamendua, taldeko kideen arteko errespetua...

Esan, dinamika honen oinarrian, ebaluatu nahi dugunaren eta konparaziorako erabiliko dugun elementuaren (irudia) arteko harremana dagoela; xehetasunak behatu eta helburuak zein diren jakin ondoren, ebaluazioa modu egokian gauzatzeko beharrezkoak diren irizpideak ezarri beharko dira, ondoren ebaluatu nahi den horren eta ebaluatzeko erabilitako elementuen arteko adostasunak, desadostasunak, antzekotasunak zein desberdintasunak bilatu ahal izateko.

Horrez gain, saioen garapenari buruzko informazioa eskainiko digu; etimologikoki ebaluatzeak, balioa adieraztea dakar berekin, honek, gauzen nolakotasunari egiten diolarik erreferentzia, hau da, saioek ikasleriaren beharrak asetzeko duten gaitasunari. Metodo honen erabilerari esker, partaideei, instrospektzioa egiteko eta saioan zehar egindako lana modu objetiboan interpretatzeko zein baloratzeko espazioa eskainiko zaie (esan daiteke irudien bidezko ebaluazioak autoebaluazio kuttu bat ere baduela).

5. Aurreikusitako ebaluazio irizpideak

Ebaluazioa hezkuntza-egoera, lanaren hausnarketa, prozesua edo emaitzak zein ikerketa behatzeko baliabide gisa ulertuz -eta ez lan prozesu bat laburbiltzeko edo ixteko balio duen jarduera soil bat bezala-, probak puntuatzeko zenbakiak edo letrak erabiltzen diren molde tradizionalekin hautsi, eta esku-hartzea ebaluatzeko irudi bidezko ebaluazioa erabiltzea proposatzen dugu batetik.

Metodologia honen erabilerarekin, saioak ebaluatzeko jarduera zerbait dinamikoa, sortzailea eta ludikoa izatea bilatzen da. Irudi bidezko ebaluazioa gauzatzeko, hartzaileei pentsamendu ezberdinak, hausnarketak, hitzak zein emozioak sorrarazi ahal dituzten irudiak erabiliko dira (koadroak, marrazkiak, koloreak, paisaiak, sinboloak, testurak...). Funtsezkoa da ere, argi eta garbi zehaztea zer den ebaluatuko dugun hori, hezkuntza-prozesuaren edozein aspektu ebaluatu bait daiteke, esaterako, edukia, dinamikak edota jarrerak.

Beraz, partaideek interesa duten eta horren inguruan hausnartu nahi duten elementuak ebaluatuko dira, hona hemen adibide batzuk: taldearen arreta-maila, kontzeptu jakin bati buruzko ezagutza, saioan zehar sortu diren sentimendu zein emozioak, erabilitako baliabideak, saioaren erritmoa, taldeko kideen arteko errespetua...

Esan, dinamika honen oinarrian, ebaluatu nahi dugunaren eta konparaziorako erabiliko dugun elementuaren (irudia) arteko harremana dagoela; xehetasunak behatu eta helburuak zein diren jakin ondoren, irizpideak ezarri beharko ditugu eta adostasunak, desadostasunak, antzekotasunak, desberdintasunak bilatu beharko ditugu.

Horrez gain, saioen garapenari buruzko informazioa eskainiko digu; etimologikoki ebaluatzeak, balioa adieraztea dakar berekin, honek, gauzen nolakotasunari egiten diolarik erreferentzia, hau da, saioek ikasleriaren beharrak asetzeko duten gaitasunari.

Metodo honen erabilerari esker, partaideei, instrospekzioa egiteko eta saioan zehar egindako lana modu objetiboan interpretatzeko zein baloratzeko espazioa eskainiko zaie (esan daiteke irudien bidezko ebaluazioak autoebaluazio kuttu bat ere baduela).

IKERTZE 30